**Bizkaiko Foru Aldundiaren 41/2010 FORU DEKRETUA, martxoaren 23koa; honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeen titularitateko kultur ondasun higigarriak kontserbatzeko diru-laguntzen deialdi publikoa, 2010ko ekitaldikoa, arautzen da.**

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak (157 zenbakiko «EHAA», 1990eko abuztuaren 2koa) 102.2. artikuluan ezarri zuen foru aldundiek urtero onetsiko dituztela kalifikatutako eta inbentariatutako kultur ondasunen kontserbazio, hobekuntza, zaharberrikuntza eta hondeaketetarako laguntzen egitarauak; egitarau horietan emango diren laguntzak ezarriko dira, baita horiek esleitzeko irizpideak eta baldintzak ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Kultura Sailaren bidez, urteetan zehar, Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat interesekoak diren ondare-elementu kulturalak zaharberritzeko eta kontserbatzeko laguntzak eman ditu.

Aspaldion, baina, hazi egin dira Bizkaiko udalek haien titulartasuneko kultur ondasun higigarriak kontserbatzeko eta zaharberritzeko Aldundiari egiten dizkioten eskariak. Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiak aholkularitza eta laguntza teknikoa eman die Bizkaiko udalei, eta batzuetan zuzeneko esku-hartzea ere izan du lanetan, egoerak edo lan horien xede zen elementuak hala eskatuz gero.

Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak uste du beste pauso bat eman beharrean dagoela; uste du emandako laguntza teknikoaz gain laguntza ekonomikoak ere eskaini behar dizkiela udalei, udal titulartasuneko ondare-elementuak kontserbatzearren, baldin eta elementuok esku-hartze espezializatu behar badute.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3. artikuluek xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, Kultura Saileko foru diputatu andre txit argiak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010ko martxoaren 23ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DA:

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Foru dekretu honen xedea da kultur ondare higigarria babestea eta 2010ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan udalek egin nahi dituzten kontserbazio-proiektuak aurrera eramateko emango diren diru-laguntzak arautzea.

Diru-laguntza horiek norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, aurkeztutako eskabideak alderatu egingo dituena, horien artean lehentasun-ordena ezartzeko, 6. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eta puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emango zaizkie foru diru-laguntzak.

**2. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak***

1. Diruz lagunduko dira honako arlo bi hauetako kultur ondasun higigarrietan egiten diren esku-hartzeak:

— Eskulturak, hainbat materialekin egindakoak.

— Margolanak, hainbat euskarritan egindakoak.

2. Diru-laguntza eskatzen duten esku-hartzeak 2010ko ekitaldian zehar hasi eta amaitu behar dira.

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 41/2010, de 23 de marzo, por el que se regula la convocatoria pública de subvenciones forales destinadas a la conservación de bienes culturales muebles, de titularidad de las entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia, durante el ejercicio 2010.**

La Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» número 157, de 2 de agosto de 1990), en su artículo 102.2 establece que las Diputaciones Forales aprobarán anualmente los programas de ayuda para la conservación, mejora, restauración y excavación de bienes culturales calificados y de los inventariados, en los que se establecerán las ayudas a conceder, así como los criterios y condiciones para su adjudicación.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través de su Departamento de Cultura, históricamente ha venido apoyando la restauración y conservación de elementos patrimoniales de carácter cultural y de interés para el Territorio Histórico de Bizkaia.

De un tiempo a esta parte ha surgido una importante demanda por parte de los Ayuntamientos de Bizkaia en términos de conservación y restauración en elementos de patrimonio cultural mueble de titularidad municipal. En este sentido, la Diputación Foral de Bizkaia ha ofrecido a los Ayuntamientos de Bizkaia asesoramiento y asistencia técnica, interviniendo incluso de manera directa en ocasiones en las que las circunstancias y el elemento en cuestión así lo requería.

Dicho esto, la Diputación Foral de Bizkaia considera que se debe dar un paso más y ofertar además de la asistencia técnica a dichos Ayuntamientos, poner a su disposición ayudas económicas que tengan como objetivo conservar aquellos elementos patrimoniales de carácter mueble de titularidad municipal y que precisen una intervención especializada.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 39 k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y por el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 132/2006, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada foral titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 23 de marzo del año 2010,

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto***

1. Constituye el objeto del presente decreto foral proteger el patrimonio cultural mueble y regular la concesión de subvenciones para la realización de proyectos de conservación de carácter municipal en el Territorio Histórico de Bizkaia, que se desarrollen durante el ejercicio 2010.

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 6, adjudicando las subvenciones forales a aquéllas que hayan obtenido una mayor puntuación.

**Artículo 2.—*Actividades subvencionables***

1. Serán objeto de subvención las intervenciones en aquellos bienes culturales muebles que se refieran a los siguientes ámbitos:

— Escultura en distintos materiales.

— Pintura en diferentes soportes.

2. Las intervenciones que motiven la solicitud deberán desarrollarse durante el ejercicio 2010.

cve: BAO-BOB-2010a061

3. Foru dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

4. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira honako hauetan egiten diren esku-hartzeak:

— Udal titulartasunekoak ez diren ondasun higigarriak.

— Foru dekretu honetako 2.1. artikuluan zehaztutako esku-hartze eremuen barruan sartzen ez diren ekintzak.

**3. artikulua.—*Pertsona onuradunak***

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak Bizkaiko udalek, udal erakunde autonomiadunek eta udal fundazio publikoek jaso ahal izango dituzte, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Duten narriatze-egoera dela-eta esku-hartzea behar duten ondasun higigarrien titularra izatea.

b) Esku-hartzeak sortuko duen gastuaren zati bat ordaintzeko izendatutako aurrekontua izatea.

c) Programatutako esku-hartzea zuzendu eta burutzeko ardura izango duen erantzulea edo lan-taldea izendatuta izatea.

**4. artikulua.—*Agiriak***

1. Diru-laguntzen eskabideak foru dekretu honen I. eranskin gisa ageri den inprimaki ofizialean aurkeztu behar dira, jarraian adierazten diren agiriekin batera, hain zuzen ere, diru-laguntzaren onuradun izateko beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatzen dutenekin.

2. Udalen kasuan, alkateak edo kultur arloaren titularrak sinatuta egon behar du eskabideak; udal erakunde autonomiadunen kasuan, erakundeko lehendakariak; eta udal fundazio publikoen kasuan, beraren ordezkaritza-ahalordea duen pertsonak.

3. Eskabidearekin batera, jarraian zehazten diren agiriak aurkeztu behar dira, bai eta II, III, IV eta V. eranskinak ere, behar bezala beteta:

— Eskatzaileari buruzko agiriak:

a) Esku-hartzea egin nahi deneko ondasun higigarrien titulartasuna duela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

b) Diru-laguntza eskatzen dueneko esku-hartzearen zati bat ordaintzeko aurrekontua duela ziurtatzen duen agiria.

c) Esku-hartzea zuzendu eta burutuko duen talde erantzulearen izendapenaren ziurtagiria.

d) Beharrezkoa denean, kultur obraren egilearen baimena.

— Esku-hartzea burutzeko ardura duen talde teknikoaren agiriak.

a) Esku-hartzea aurrera eramango duen enpresaren edo talde teknikoaren esperientzia egiaztatzen duten agirien kopia.

b) Jardueraren zuzendariaren edo ikertzaile nagusiaren curriculum vitaea.

c) Jarduerako taldea osatzen duten adituen curriculum vitaea.

d) Esku-hartzea egiteko behar diren eskuespenak, lizentziak eta baimenak lortu dituela edota lortzeko bidean dagoela frogatzen duten egiaztagiriak. Edonola ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak («EHAA», 157. zk., 1990eko abuztuaren 6koa) aipatzen dituen baimenak egiaztatu behar dira.

— Jarduerari dagozkion agiriak: Proiektatuta dagoen esku-hartze bakoitzaren proiektu xehatua; bertan, honako datu hauek eman behar dira, gutxienez:

3. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de los solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de las actividades.

4. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral las intervenciones relacionadas con:

— Bienes muebles que no sean de propiedad municipal

— Acciones que no se encuadren dentro de las áreas de intervención señaladas en el artículo 2.1 del presente decreto foral.

**Artículo 3.—*Personas beneficiarias***

Podrán acogerse a las ayudas establecidas en el presente Decreto foral los Ayuntamientos, los Organismos Autónomos Municipales y las Fundaciones Públicas Municipales de Bizkaia que cumplan los siguientes requisitos:

a) Ser titulares de los bienes muebles cuyo estado de deterioro sea susceptible de intervenir.

b) Disponer de presupuesto destinado a sufragar parte del gasto que ocasiona la intervención.

c) Haber nombrado un responsable o equipo de trabajo encargado de dirigir y ejecutar la intervención programada.

**Artículo 4.—*Documentación***

1. Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial que figura como Anexo I del presente Decreto foral, junto con la documentación que a continuación se señala y que es acreditativa del cumplimiento de los requisitos necesarios para ser beneficiario de la subvención.

2. La solicitud deberá estar suscrita, para el caso de los Ayuntamientos por el/la Alcalde/sa o el/la titular del Área de Cultura; para el supuesto de los Organismos Autónomos municipales por el/la Presidente/a del mismo, y para las Fundaciones Públicas Municipales, por quien ostente poder de representación de la misma.

3. A la solicitud deberá acompañar la documentación que a continuación se específica, así como los anexos II,III, IV, y V, debidamente cumplimentados:

— Documentación relativa al solicitante:

a) Copia de la documentación acreditativa de poseer la titularidad de los bienes muebles sobre los que se pretende intervenir.

b) Certificado de disponer de presupuesto destinado a sufragar parte de los gastos de la intervención para la que se solicita subvención.

c) Certificado de nombramiento del equipo responsable de dirigir y llevar a cabo la intervención.

d) En su caso, autorización del autor de la obra.

— Documentación del equipo técnico encargado de la intervención.

a) Copia de la documentación acreditativa de la experiencia de la empresa o equipo técnico que desarrollará la intervención.

b) Curriculum vitae del/a director/a de la actividad o investigador/a principal.

c) Curriculum vitae de los/as especialistas que conforman el equipo de la actividad.

d) Copia de la documentación acreditativa de haber obtenido o estar en trámite de obtención de las autorizaciones, licencias y permisos necesarios para llevar a cabo la intervención. En todo caso será necesario acreditar las autorizaciones a que se refiere la Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» número 157, de 2 de agosto de 1990).

— Documentación relativa a la actividad: Proyecto detallado de cada una de las intervenciones que se proyecten realizar, que al menos incluya:

cve: BAO-BOB-2010a061

1. Kontserbazioko esku-hartzeak egin nahi direneko kultur ondasun higigarriaren argazkiak (gutxieneko tamaina: 10x15; koloretakoak).

2. Proiektuaren deskripzioa: egin nahi diren kontserbazioko esku-hartzeak azaltzeko memoria jaso behar du, eta esku-hartzea hartuko duten ondasun higigarriek udalerriaren testuinguru kulturalean duten garrantzia adierazi behar da, eta honako hauek ere bai:

— Kultur ondasun higigarriak dituen kalteak, esku-hartzea eragiten dutenak.

— Egingo diren esku-hartzeen deskripzioa.

— Esku-hartzeko prozesua.

— Aurrekontuaren banakapena, esku-hartzearen kapituluen arabera banatuta.

— Kultur ondasun higigarriaren titulartasunari buruzko datuak.

— Agiri orokorrak:

— Helburu bererako eskatutako beste diru-laguntzen zerrenda, edo, bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada, halaxe jakinarazten duen adierazpena. Zehaztu egin beharko dira beste edozein erakunderi —publikoa zein pribatua— helburu berbererako eskatutako diru-laguntzak, eta eskabide horren egoera (ukatua, erantzunaren zain, emana) eta zenbatekoa xehetasunez aditzera eman.

— Foru dekretu honen 6. artikuluan zehaztutako adjudikazio-irizpideak justifikatzeko gainerako agiriak.

**5. artikulua.—*Eskabideak eta epeak***

1. Eskabideak aurkeztu ahal izango dira edo Kultura Ondarearen Zerbitzuaren bulegoetan — Bilboko Maria Diaz de Haro kalea 11, 7. solairua (astelehenetik ostiralera bitartean, 8:30etik 13:30era)—, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioaren Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak, xedatutako moduan, eta alkateak, edo hori ezean Kultura Arloaren titularrak, izenpetuta egongo dira.

2. Eskabideak aurkezteko hilabeteko (1) epea dago, deialdia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunetik zenbatuta.

3. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo horiek ez badute foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat, orduan interesdunari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

4. Beharrezkotzat jotzen denean, Kultura Ondarearen Zerbitzuak egoki deritzon dokumentazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako eskabideak ebatzi ahal izateko. Errekerimendua egin zaion eskatzaileak agiri horiek ezarritako epearen barruan aurkezten ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskabidea artxibatu egingo da; horretarako, aurretik, ebazpena eman behar da.

**6. artikulua.—*Balorazio-irizpideak***

1. Diru-laguntzen eskabideei buruzko ebazpen-proposamena eman eta laguntzen kopuruak ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak honako irizpide hauek eta beren ponderazioa hartuko ditu kontuan. Gehienez ere 100 puntu emango dira, honela banatuta:

— Kulturari dagokionez Bizkaiko Lurralde Historikoan garrantzi historiko-artistikoa duten kultur elementuak: 40 puntu gehienez

— Esku-hartzearen proiektua, teknikari aditu batek sinatua, eta jarraian adieraziko direnak jasotzen dituena —40 puntu gehienez—:

— Kalteen diagnostikoa.

— Tratamendua eta esku hartzeko irizpideak.

— Aurrez ikusten diren mantentze-lanak.

1. Fotografías del elemento cultural mueble donde se pretenden realizar las intervenciones de conservación (tamaño mínimo de 10x15, en color).

2. Descripción del proyecto, que incluirá memoria explicativa de las intervenciones de conservación proyectadas, haciendo constar su importancia en el contexto cultural del municipio y conteniendo:

— Daños en el objeto cultural mueble que motiven la intervención.

— Descripción del tipo de actuaciones a realizar.

— Proceso de intervención.

— Desglose del presupuesto por capítulos de intervención.

— Datos sobre la titularidad del bien cultural mueble.

— Documentación general:

— Relación de otras solicitudes de subvención para el mismo objeto o, en el caso de no haberse solicitado ninguna otra subvención, declaración indicando este extremo. Habrá de detallarse toda subvención instada a cualquier otra entidad, pública o privada, para el mismo objeto, detallándose el estado de la misma (denegada, pendiente de contestación, concedida) y su importe.

— Demás documentación que justifique los criterios de adjudicación señalados en el artículo 6 de este Decreto foral.

**Artículo 5.—*Solicitudes y plazos***

1. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Patrimonio Cultural, sitas en María Díaz de Haro, número 11,7.° de Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 h.), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificado por la Ley 4/99, de 13 de enero, siendo el/la Alcalde/sa quien firme la solicitud, o en su defecto, el/la titular del Área de Cultura.

2. El plazo de presentación de solicitudes será de un (1) mes a partir de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

3. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá al interesado/a para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido/a de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

4. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Patrimonio Cultural podrá requerir a los/as peticionarios/as cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el/la peticionario/a requerido/a no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistido/a de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

**Artículo 6.—*Criterios de valoración***

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos se establecen como sigue:

— Elementos culturales con relevancia histórico-artístico en términos culturales en el Territorio Histórico de Bizkaia: Hasta 40 puntos.

— Proyecto de intervención, firmado por un técnico competente, y en el que conste —hasta 40 puntos—:

— Diagnóstico de daños.

— Tratamiento y criterios de intervención.

— Mantenimiento previsto.

cve: BAO-BOB-2010a061

— Esku-hartzeak udalerriaren testuinguru kulturalean duen garrantzia: 10 puntu gehienez.

— Eskatzaileak proiektua finantzatzeko egingo duen diru-ekarpena, edo jarduerak berak sortuko dituen sarreren bidez, edo beste babesle publiko eta/edo pribatu batzuen ekarpenen bidez: 10 puntu gehienez.

2. Epaimahai kalifikatzailearen ustez gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuen eskabideak ez dira ontzat hartuko.

3. Edozelan ere, foru dekretu honetan araututako diru-laguntzek horretarako ezarritako aurrekontuetan dagozkien zuzkidurak izango dituzte mugatzat; ondorioz, ez da nahikoa izango eskatzaileak ezarritako baldintza eta beharkizunak betetzea; horrez gain eskatzaile horren eskabideari erantzun ahal behar izango zaio, aurrekontuetan dagozkion zuzkidurak kontuan hartuz.

4. Proiektua eta aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezaketen jarduerei dagozkiela egiaztatu ondoren, edo, behar izanez gero, zenbatzekoak ez diren gastuak eta gaindikinak kendu eta gero, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da. Zenbateko horrek ezin izango du gainditu diru-laguntza eskatzen deneko jardueraren proiektuak duen aurrekontuaren %50.

5. Diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du inoiz, berak bakarrik edo beste diru-laguntzekin nahiz laguntzekin batera, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

6. Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak puntuatu eta erkatuko ditu, horien artean lehentasuna dutenak ezartzeko, zehaztutako irizpideei jarraituta betiere. Horrekin batera, diru-laguntzen zenbatekoa zehaztuko du, eta eskatzaile bakoitzak lortu dituen puntuen arabera banatuko du aurrekontuko dirua.

**7. artikulua.—*Aholkularitza***

Kultura Ondarearen Zerbitzuak beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko die udalei, foru dekretu honen interpretazioa nahiz jardueren proiektuak direla-eta udal horiei sortzen zaizkien zalantzak argitzeko edo udalok egiten dituzten aholku-eskeei erantzuteko.

**8. artikulua.—*Epaimahai kalifikatzailea***

1. Epaimahai kalifikatzaile bat sortuko da, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituena; Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako diputatuak izendatuko du epaimahai hori, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko den foru agindu baten bidez, eta honako kide hauek izango ditu:

a) Epaimahaiburu titularra:

— Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia.

Ordezko epaimahaiburua:

— Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia.

b) Epaimahaikide titularrak:

— Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.

— Esku-hartze Arkitektonikoaren eta Errestaurazioaren Ataleko burua.

— Kultura Ondarearen Zerbitzuko Esku-hartze Arkitektonikoaren eta Errestaurazioaren Ataleko teknikari bat.

Ordezko epaimahaikideak:

— Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua.

— Esku-hartze Arkitektonikoaren eta Errestaurazioaren Ataleko teknikari bat.

— Esku-hartze Arkitektonikoaren eta Errestaurazioaren Ataleko teknikari bat.

— Relevancia de la intervención en el contexto cultural del municipio: hasta un máximo de 10 puntos.

— Aportación económica del solicitante a la financiación del proyecto, bien mediante la generación de ingresos propios de la actividad, bien derivados de la aportación de otros patrocinadores públicos y/o privados: Hasta 10 puntos.

2. Las solicitudes cuyos proyectos no alcancen un mínimo de 50 puntos, a juicio del tribunal calificador, no serán estimadas.

3. En todo caso, las subvenciones reguladas en el presente Decreto foral, tendrán como límite las correspondientes dotaciones presupuestarias establecidas al efecto, y en consecuencia no bastará con que el/la solicitante reúnan las condiciones y requisitos exigidos, sino que se precisará, además, que su solicitud pueda ser atendida teniendo en cuenta las respectivas dotaciones presupuestarias.

4. Una vez comprobado que el proyecto y el presupuesto corresponden efectivamente a actividades susceptibles de subvención, o realizada en su caso la depuración de los gastos y excesos no computables, se procederá a determinar la cuantía de la subvención que no podrá superar el 50% del presupuesto del proyecto de la actuación para la que se solicita subvención.

5. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

6. El tribunal calificador procederá a la puntuación y comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer un orden de prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración especificados, y determinará la cuantía de las subvenciones distribuyendo la consignación presupuestaria en proporción a la puntuación obtenida por cada solicitante.

**Artículo 7.—*Asesoramiento***

El Servicio de Patrimonio Cultural prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta planteada desde los Ayuntamientos, referida tanto a la interpretación del presente decreto foral como a cualquier cuestión relativa al proyecto de actividades.

**Artículo 8.—*Tribunal calificador***

1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un Tribunal calificador designado por la diputada de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante Orden Foral que será publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y que estará integrado por los siguientes miembros:

a) Presidente titular:

— El director general de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Presidente suplente:

— La directora general de Promoción del Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.

b) Vocales titulares:

— El jefe del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

— La jefa de la Sección de Intervención Arquitectónica y Restauración.

— Un/a técnico de la Sección de Intervención Arquitectónica y Restauración del Servicio de Patrimonio Cultural.

Vocales suplentes:

— El jefe del Servicio de Acción Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

— Un/a técnico/a de la Sección de Intervención Arquitectónica y Restauración.

— Un/a técnico/a de la Sección de Intervención Arquitectónica y Restauración.

cve: BAO-BOB-2010a061

c) Idazkaria:

— Kultura Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat; hitza duela baina botorik gabe jardungo du.

Ordezko idazkaria:

— Kultura Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak adjudikatzeko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

**9. artikulua.—*Ebazpena***

1. Deialdia ebatzi baino lehen, eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Horren egiaztapena egin ondoren, eskatzaileren batek betebehar horietako bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, 10 eguneko epean egoera hori erregularizatzeko eskatuko zaio, eta ohartaraziko zaio horrela egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

2. Eskabideak Kulturako foru diputatuak ebatziko ditu, horretarako foru aginduaren bidez eta epaimahaiaren ebazpen-proposamena ikusita. Horretarako epea hiru (3) hilabete izango dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Epe hori bukatu ondoren eskabideari buruzko ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, eskabide hori ukatutzat joko da; hala ere, ondoren ebazpen adierazia eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko emango den foru agindua «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da, gehienez ere ebazpena eman eta handik hilabetera (1). Argitaratu ostean, gainera, foru diru-laguntza horien deialdirako eskabidea aurkeztu duten guztiei posta ziurtatuaren bidez emango zaie ebazpenaren berri. Jakinarazpen horrek beren-beregi jasoko du ebazpenak administrazio bidea bukatzen duela, eta interesa duen herri administrazioak bi hileko epea duela administrazioarekiko auzi-bidetik errekurritzeko, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita. Aurrez errekerimendua egin bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehazten denaren arabera, orduan, errekurtsoa aurkezteko epea beren-beregiko erabakiaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen edo, bestela, ustez ukatutzat jotzen den egunaren biharamunean.

5. Arautegi honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio batzuek, erakunde publikoek nahiz pribatuek, estatukoek nahiz nazioartekoek helburu berbererako ematen dituztenekin.

6. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren baten aldaketak, eta dena dela, aldi berean estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortzeak, diru-laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezakete, foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzei doakien zenbatekoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza edo laguntzaren batekin batera, inola ere ezin baita izan erakunde onuradunak garatuko duen jardueraren kostua baino handiagoa.

**10. artikulua.—*Diru-laguntzaren ordainketa***

1. Diru-laguntza eman dela jakinarazi eta berehala, Kultura Ondarearen Zerbitzuak zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

2. Aurrekoak egiaztatu ondoren, erakunde onuradunetariko baten batek betebehar horietako bat, edozein, ez duela betetzen

c) Secretaría:

— Un/a técnico/a de la Dirección General de Cultura que actuará con voz, pero sin voto;

Secretaría suplente:

— Un/a técnico/a de la Dirección General de Cultura.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Cultura, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

**Artículo 9.—*Resolución***

1. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Patrimonio Cultural comprobará que los solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguien incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerido para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida.

2. Las solicitudes serán resueltas por la diputada foral de Cultura, a través de la correspondiente orden foral, a la vista de la propuesta de resolución del tribunal calificador, en el plazo de tres (3) meses, que se contará desde el día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

